


Bisonteak suntsitzeko bidean

Negu gogorak eta elikadura faltak eraginda, Ipar Amerikan bisonteek Yellowstone-ko parke nazionalako mugetatik kanpora emigratu dute. Azken bidaia izan da 750 bisontentzat, parketik kanpo hil egin dituztelako. Estatu Batuetako osasun-zerbitzuak eman duten azalpena honako hau



Goseak eraginda paseora irten ziren Yellowstone-ko 750 bisonteek azken ibilbidea egin zuten, *Brucella* bakterioa aitzaki hil egin baitzizuten.

izan da: bisonteek gaudarentzat eta gizakientzat arriskutsua den *Brucella* izeneko bakterioa daramate eta horregatik hil dituzte. Parke nazionalakoentzat ordea, arrazoi horrek ez du inolako zentzurik. Beste espezie batzuk ere izaten dute delako bakterio hori (altzeak, adibidez), baina inolako oztoporik gabe ibiltzen dira hiltzeko arriskurik gabe. 1996ko otsailean Yellowstone-ko parkean 2.200 bisonte baino ez zeuden.



Erresuma Batuko Ministeritzak esan duenez, Eskoziako Clyde estuarioa munduko kostalderik zikinenetakoa da gaur egun. Hori gutxi balitz, ez da ahaztu behar garbiketa egiterakoan bertako biztanleen osasuna arriskuan jar daitekeela.

Hondakin arriskutsuak Eskoziako kostaldean

EBBetako armadak hondakin ugari bota ditu mende honetan (batez ere Gerra Hotzaren garaian) Eskoziako Clyde estuarioko Holy lakuaren uretara. Ondorio larriak ekarri ditu horrek, Erresuma Batuko Defentsa Ministeritzak esan duenez, Clyde estuarioa munduko kostalderik zikinenetakoa baita gaur egun.

Ingurugiro-ikerketa batzuen datuen arabera, Erresuma Batuko uretan metal astunen, PCBen eta beste substantzia toxikoen kontzentrazio handiena Holy laku-ko uretan ematen da. Eskoziako laku hau estatubatuarrek erabili zuten 1961etik 1992ra bitartean urpekuntzi nuklearrak konpontzeko. Zoritxarrez, 130.000 m² hondakin kaltegarri isuri zituzten eskoziako uretan. Poluzioa garbitzeko martxan jarri den sistema ere oso arriskutsua

dela ohartarazi dute zientzilariek. Garbiketa egiterakoan hondakin nuklearrak kontu handiz tratatu beharko dira eta honek arrisku larri jar dezake inguruko biztanleriaren osasuna. Hortaz, garbiketarako arazoak konpondu beharrean okertu egin ditzazke.

Arnasa hartzeko arazoak Indiako hiriburuan

Delhiko biztanleek badute kezkatzeko motiborik. Indiako Poluzio Kontseiluaren ikerketa baten

arabera, nazioarteko osasun-erakundeek gomendatzen dutena baino zazpi aldiz poluzio handiagoa dago hiri horretako atmosferan. Kontseiluko ikertzaileek diotenez, Delhiko kaleak munduko poluituenetakoa dira. Dena dela, oraindik ez dakite zehatz arnasten den airearen poluzio-maila zein den. Ikerketa egileen ustez, neurri gogorak hartu behar dira berehala poluzioa geldiarazteko; biztanleen arnas-arazoak gero eta larriagoak baitira. Lan orduetan automobilen heren bat errepideetan ibiltzen galeraztea neurri egokia litzatekeela diote.

Nazioarteko erakundeek, berriz, Delhiko umeen osasun-arazoak aipatu dituzte. Bertako umeek arnasten duten airea gehieneko muga baino ia zortzi aldiz poluituagoa dago.

Poluzio Kontseiluaren ikerketa baten arabera, nazioarteko osasun-erakundeek gomendatzen dutena baino zazpi aldiz poluzio handiagoa dago Delhiko atmosferan.

